

4. ETAPA: NEURRIAK HARTZEA



HELBURUAK

- ✓ Ikasleak ez uztea ikastaroaren ondoren ezintasun sentimenduarekin, baizik eta nahi badute beren potentziala garatzeko aukerak dituztela ikusaraziz.
- ✓ Ikasleei elkarrizketa esanguratsua eta inspirazioa ematea, ingurumen-kaltea gutxitzeko edota gizarte integratzaileagoak sustatzeko lan egiten duten pertsonekin harremanetan jarritz.
- ✓ Ikasleei landutako gaiekin konprometitzen jarraitzeko moduak eta informazioa ematea.
- ✓ Ikasleei ingurumen-aldaketa gutxitzen edo gizarte integratzaileagoak garatzen lagunduko dieten aukerak aurkeztea.

7. Fitxa: Behar dugun aldaketari buruzko perspektibak: World Café



HELBURUAK

- ✓ Ikasleei elkarrizketa esanguratsuren bat eta inspirazioren bat eskaintzea, ingurumen-aldaketan eta migrazioan lan egiten duten pertsonekin harremanetan jarritz.
- ✓ Ikasleei ingurumen-aldaketa gutxitzen edo gizarte integratzaileagoak garatzen lagunduko dieten aukera batzuk aurkeztea.

BEROTZE-JARDUERA



**BEROTZE-
JARDUERA**



**PROPOSATUTAKO
DENBORA**

5 minutu



**PROPOSATUTAKO
MATERIALAK**

✓ Ez da
beharrezkoa
materiala

URRATSAK



Jardueraren moderatzaileak bere esperientzia eta aurrekariak aurkeztuko dizkie parte-hartzaileei «kafetegian», eta World Caféren metodologia azalduko die ikasleei (ikus behean)

JARDUERA NAGUSIA: World Cafe



JARDUERA NAGUSIA



PROPOSATUTAKO DENBORA

**60 minutu 4
mahairekin
egiten bada eta
45 min. hiru
mahairekin
bada**



PROPOSATUTAKO MATERIALAK

- ✓ **3/4 mahaiaik**
- ✓ **Aulkiak**
- ✓ **Kartel-paper
edo kartoi
handiak**
- ✓ **Boligrafoak eta
kolore
errotulatzailak**

World Café metodologiak talde handietan elkarrizketa egitea errazten du. World Cafék une hauek ditu:

URRATSAK



Eszenatokia

Giro atsegina sortu ezazu: solas-talde txiki bakoitzerako mahai bana (ikus 3. pausoa: "errondak talde txikietan"), guztiak esertzeko adina aulki (6 gutxi gorabehera) eta papera, koloretako boligrafoak eta oharrak hartzeko behar diren artikuluak eman.

2

Ongietorria eta sarrera (ikus berotze-jarduera)

Irakaslea/moderatzailea ongietorri beroarekin eta World Café prozesuaren aurkezpenarekin hasten da, testuingurua ezarriz, «kafearen etiketa» partekatuz (zure ideiak eta esperientzia ematea; ulertzeko entzutea; ideiak elkarri lotzea; patrioiak, gogoeta bereizgarriak edota galdera sakonagoak aurkitu eta proposatzea; idaztea, zirriborratzea, marraztea...); betiere parte-hartzaileak eroso sentiaraziz.

3

Errondak talde txikietan

Mahai baten inguruan eserita dauden talde txikientzako lehenengo elkarrizketa-errondarekin hasten da prozesua. Hemen 4 mahai izatea proposatzen dugu, eta horietako bakoitzean, mahai horri dagokion gaiarekin lotura duen pertsona anfitrioiia.

Erronda bakoitzaren aurretik, **galdera bat** planteatuko da, World Café-ren testuinguru zehatzerako eta lortu nahi den helbururako bereziki diseinatua. Kasu honetan, gure proposamena honako gai hauek jorratzea da, eta landuko diren gaiekin zuzeneko lotura duten pertsonak bertan izatea:

- The importance of **scientific education**: how can **science**
- Hezkuntza zientifikoaren **garrantzia**: Zientzia **zertan izan daiteke** lagungarria guretzat klima- eta ingurumen-aldaketari aurre egiteko? Zer ezaugarri izan behar dituzte hezkuntza-programek ikasleei laguntzeko klima- eta ingurumen-larrialdiak eta migrazio-arazoak ulertzen eta haiei ekiten? Anfitrioiia klima- eta ingurumen-aldaketari buruzko ezagutza eta prestakuntza zientifikoa duen pertsona bat izango da.
- Zer esan nahi du **ingurumen-ekintzailea izateak** (aldaketa politiko edo soziala eragiteko kanpaina egiten duen pertsona)? Zer ekintza egin dezakete ikasleek klimaren eta ingurumenaren aldaketa arintzeko? Anfitrioiia ingurumen-ekintzaile bat izango da.
- Zein dira gizarte inklusibo baten ezaugarriak? Zer praktikak laguntzen die pertsonari ongietorriak sentitzen eta

«harrera»ko gizarteetan aktiboki parte hartzen? Anfitrioia errefuxiatu edo migratzaile bat izango da.

- Zer esan nahi du migratzaileen eskubideen aldeko aktibista izateak? Zer ekintza egin ditzakete ikasleek errefuxiatuen eta migratzaileen eskubideak defendatzeko? Anfitrioia pertsona migratzaileen eskubideen aldeko ekintzailea izango da

Talde bakoitzak askotarikoa izan behar du: irakasleek ikasleak nahastu behar dituzte, ezaugarri eta trebetasun diferentek bilduz, ikuspegi desberdinetatik etekina atera ahal izateko. 15 minutu egongo dira erronda/mahai bakoitzerako. Hasteko, anfitrioia 3 minutuko hitzaldia izango da, non hark bere erantzuna emango dio galderari. Ondoren, taldea solasean hasiko da. Taldeak bere ondorio nagusiak marraztu, idatzi edo beste bide batzuetatik islatuko ditu, mahai bakoitzak duen kartoi mehean. (Kartoi mehea mahaian utzi behar da). Hamabost minutu igaro ondoren, taldeko kide bakoitza beste mahai batera pasatuko da. Talde bakoitzak aurreko taldeak galderei erantzuteko kartoi mehean idatzi duen testua landuko du, eta iruzkinak egingo ditu, osatuko du, etab. Mahai bakoitzeko anfitrioiek aurreko taldeetako eztabaidaren eta kartoi mehean idatzitakoaren berri eman diezaiekete parte-hartzaileei. («TheWorldCafe» ekimenetik egokitua, <http://theworldcafe.com/>)

Egokiena profil bakoitzeko kide bat izatea da (errefuxiatua, zientifikoa, ingurumen-ekintzailea, desplazatuaren aldeko ekintzailea). Kanpoan profila aurkitzen ez badugu, zenbait profil betetzen dituzten irakasleak edo hezkuntza-komunitateko pertsonak egon daitezke, eta «ikasle enbaxadoreen ekintzak» (ikus behean) aurkez daitezke mahai bakoitzean. Proiektuaren bigarren urtean aurreko urtean enbaxadore izan ziren ikasleek ere parte har dezakete.

ITXIERA



ITXIERA



PROPOSATUTAKO
DENBORA

10 minutu



PROPOSATUTAKO
MATERIALAK

✓ Jarduera
nagusiko
kartela edo
kartoia

URRATSAK

1

Taldeak beren lehenengo mahaira itzuliko dira. Talde guztien iruzkinak aztertzen dituzte, eta mahaiko anfitrioiaren laguntzarekin, taldeen ondorio nagusiak laburtzen dituzte, kartel batean islatzen dituzte, eta gelako horman zintzilik jarriko dute.

8. Fitxa: Esperientziak eta konpromisoak hautatzea



HELBURUAK

- ✓ Ikasleei aukera kolektibo batzuk aurkeztea, ingurumen-aldaketa gutxitzeko edo gizarte integratzaileagoak garatzeko lagungarriak izan daitezkeenak.
- ✓ Gai horietan parte hartzen jarraitu nahi duten ikasleei informazioa, inspirazioa eta proposamen zehatzak ematea.
- ✓ Saioaren helburua: garatu beharreko bi proiekturen ildo nagusiak adostu eta hausnartzea.

BEROTZE-JARDUERA



**BEROTZE-
JARDUERA**



**PROPOSATUTAKO
DENBORA**

5 minutu



**PROPOSATUTAKO
MATERIALAK**

✓ **Interneteko
bideoa
taldeetan
partekatze
laguntza**

URRATSAK



Aktibismoari buruzko 4 bideo iradokitzaile proiektatzea, lau emakumeri, lau kontinenteri eta lau ekintzaileri buruz:

- [Wangari Maathai](#) (audioa ingelesez, azpítituloak gaztelaniaz)
- [Berta Cáceres](#) (audioa gazteleraz, azpítituloak ingelesez),
- [Sara Mora](#) (ingelesez)
- [Greta Thunberg](#) (audioa ingelesez, azpítituloak gaztelaniaz.)

JARDUERA NAGUSIA: ekintza hautatu



JARDUERA NAGUSIA



PROPOSATUTAKO DENBORA

30 minutu



PROPOSATUTAKO MATERIALAK

- ✓ Interneteko konexioa duten 6 gailu
- ✓ Papera eta boligrafoa ikasle bakoitzarentzat

URRATSAK

1

Irakasleak “Ingurumen-ALDAKETA eta migrazioa” (5 minutu) proiektuari buruz emandako ideia batzuk aurkeztuko ditu:

- Adibideko ideia horiek IV. eranskinean zehazten dira.

2

4x4x4 metodologia (25 minutu)


- Parte-hartzaile bakoitzak 4 minutu ditu bere kabuz 4 ideia idazteko paper batean (gutxienez 2 ideia klima- eta ingurumen- aldaketari buruzkoak izan beharko lirateke, eta beste biak migrazioari buruzkoak). Proposamenek ezaugarri

hauek izan behar dituzte: zehatzak eta egingarriak izan behar dute, eta ikastetxearen espazioan eta denboran egin ahal izango dira (adibidez, jolasaldietan, astebete prestatzeko eta beste bat «gauzatzeko»).

- Ondoren, taldea bikoteka banatzen da. Bikote bakoitzak ados jarri behar du, eta haien lau ideiak idatzi behar dituzte (2 ingurumen-aldaketari buruzkoak eta 2 migrazioari buruzkoak). Horrek ideia hautatu batzuk (edo, agian, kasu batzuetan, ideia-multzo bat) ekarriko ditu.
- Hurrengo urratsa ideiak hautatzeko prozesu bera egitea izango litzateke, baina 4ko taldearekin.
- Prozesua 8 pertsonako taldeetan errepikatzen da, eta, azkenik, talde osoa bildu arte jarraitzen du, egin dena bateratzeko eta 4 ekintza hautatzeko: gutxienez 2 ekintza izan beharko lirateke klima- eta ingurumen-aldaketakoak eta beste 2 migrazio-gaietakoak; baina are hobea da ikasleek bi alderdi horiek batera uztartzen dituzten ekintzak aurkezten badituzte.

Denbora: 4-8 minutu inguruko tartea, taldeen funtzionamenduan moderatzaileak ikusten duenaren arabera.

ITXIERA



PROPOSATUTAKO
DENBORA

PROPOSATUTAKO
MATERIALAK

ITXIERA

15 minutu

✓ Ekintza
Planaren
tresna

URRATSA



4 talde egingo dira, proposamen bakoitzeko bat. Talde bakoitza ekintza gauzatzeko ekintza-plan bat prestatzen hasiko da, CHANGE Environment proiektuaren ekintza-planari jarraituz (ikus 5. Eranskina). Ekintza-plan hori gelako horman jarriko den kartel batean idatziko da.

Baliteke ekintza planifikatzeak, ekintza-planaren dokumentuaren bidez, denbora gehiago hartzea itxiera-jarduerak baino. Proiektu bat aurrera eramateko interesa eta gogoia piztea da hemen ideia. Ekintzan lan egiteko denbora gehiago ematea litzateke egokiena.



Irakasleen laguntza duten eta proiektuak gauzatzeko interesa duten ikasleek aholkularitza eska diezaiokete «Change environment» taldeari, informazioa lortzeko

